# I ERANSKINA / ANEXO I

**HERRIKO ESTABLEZIMENDU KOMERTZIALETAN EUSKARAZKO ERROTULUAK JARTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK.**

**1. Xedea.**

Udalerrian kokatutako establezimendu komertzialei euskarazko errotuluak jartzen laguntzea da diru-laguntza hauen xedea.

**2. Onuradunak.**

Udalerrian errotuluak euskaraz jartzen dituzten jarduera ekonomikoen titular diren pertsona fisiko edo juridikoak izan daitezke onuradun.

Onuradun izateko ezinbesteko baldintzak izango dira:

a) Aldez aurretik errotulua jartzeko udal-baimena eskatu eta lortu izana, hirigintza-araudiaren arabera.

b) Egunean izatea Gizarte Segurantzarekiko, Soraluzeko Udalarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko zerga-betebeharrak.

Ez dira diruz lagunduko udalaren nahitaezko baimenik gabe instalatutako errotuluak, nahiz eta ondoren legeztatu ahal izan.

**3. Prozedura: epea, tokia, aurkeztu beharreko dokumentazioa.**

Eskabidea Soraluzeko Udaleko Erregistro Orokorrean egingo da, horretarako behar bezala betetako eskabide-orri

**BASES REGULADORAS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA LA COLOCACIÓN DE RÓTULOS COMERCIALES EN EUSKERA.**

**1. Objeto.**

El objetivo de las ayudas es el de subvencionar la colocación de rótulos en euskera en los comercios de la localidad.

**2. Personas beneficiarias.**

Podrán ser beneficiarias las personas físicas o jurídicas titulares de actividades económicas ubicadas en el término municipal que instalen rótulos en euskera.

Serán requisitos indispensables para adquirir la condición de persona beneficiaria:

a) Haber solicitado y obtenido previamente la correspondiente autorización municipal para la colocación del rótulo, de conformidad con la normativa urbanística.

b) Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social, el Ayuntamiento de Soraluze, la Hacienda Foral y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

No serán subvencionables los rótulos instalados sin la preceptiva autorización municipal, aunque posteriormente fueran legalizables.

**3. Procedimiento: plazo, lugar, documentación a presentar.**

La solicitud se realizará en el Registro General del Ayuntamiento de Soraluze presentado para ello el Impreso de

normalizatua aurkeztuta (ikus eranskina), bertan eskatzen den dokumentazioarekin:

• - Eskabide-orria, behar bezala beteta.

• NAN edo agiri baliokidea, jatorrizkoa edo konpultsatua

• Jarri beharreko errotuluaren aldez aurreko proba edo irudia

• Errotuluan idatziko den testuaren zirriborroa

solicitud normalizado debidamente rellenado (Ver anexo) con la documentación que se requiere en el mismo:

- Impreso de solicitud, debidamente cumplimentado
- DNI o documento equivalente, original o compulsado
- Prueba o imagen previa del rótulo a colocar
- Borrador del texto que se redactará en el rótulo

**Epea:** Eskaerak aurkezteko epea 2026ko martxoaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

**Plazo:** el plazo de presentación de las solicitudes será desde el 1 de marzo de 2026 hasta el 31 de diciembre de 2026.

**3. Dirulaguntzen zenbatekoa.**

**3. Cuantía de las subvenciones.**

Dirulaguntzaren zenbatekoa eskabidearekin batera aurkeztutako aurrekontuaren arabera zehaztuko da, honako ehuneko hauek aplikatuz:

a) Eskabidearekin batera aurkeztutako aurrekontuaren **% 50, 300 euroko gehinezko mugare**kin, errotulua euskara hutsean idatzita dagoenean.

b) Eskabidearekin batera aurkeztutako aurrekontuaren **% 25, 125 euroko gehieneko mugarekin**, errotulua euskaraz eta gaztelaniaz idatzita badago, betiere euskara lehentasunezko posizioan badago.

La cuantía de la subvención se determinará en función del presupuesto presentado junto con la solicitud, aplicando los siguientes porcentajes:

a) **El 50 % del presupuesto presentado con la solicitud**, con un límite máximo de **300 euros**, cuando el rótulo esté redactado exclusivamente en euskera.

b) **El 25 % del presupuesto presentado con la solicitud**, con un límite máximo de **125 euros**, cuando el rótulo esté redactado en euskera y castellano, siempre que el euskera figure en posición prioritaria.

**4. Prozedura eta ordainketa.**

**4. Procedimiento y pago.**

**Prozedura:**

Errotulua jartzeko udal-baimena dirulaguntza ematea ebazten duen administrazio-egintza berean emango da.

Horretarako, nahitaezko txosten teknikoak emango dira ebazpena eman aurretik.

**Procedimiento:**

La autorización municipal para la colocación del rótulo, se otorgará en el mismo acto administrativo que resuelva la concesión de la subvención.

A tal efecto, se emitirán los informes técnicos preceptivos con carácter previo a la resolución.

Ebazpena Alkatetzaren Dekretu bidez emango da, eta bertan espresuki jasoko dira:

a) Errotulua instalatzeko baimena ematea, hala badagokio, dagozkion baldintza teknikoekin.

b) Dirulaguntza ematea eta zenbatekoa.

c) Gauzatzeko, justifikatzeko eta ordaintzeko baldintzak.

Emandako baimenean ezarritako baldintzak betetzeak baldintzatuko du dirulaguntzaren eraginkortasuna.

**Justifikazioa eta ordainketa**: Dirulaguntza eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuaren arabera emango da.

Hala ere, dirulaguntzaren obligazioa onartzeko eta benetan ordaintzeko, diruz lagundutako jarduera behar bezala justifikatu beharko da aldez aurretik.

Horretarako, onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita **gehienez ere sei hilabeteko epean:**

- gastua egin dela egiaztatzen duen faktura xehatua
- Establezimenduan errotulua benetan instalatu dela egiaztatzen duen dokumentazio grafikoa (argazkia).

Justifikazio-agiriak adierazitako epean aurkezten ez badira, dirulaguntza kobratzeko **eskubidea galduko da.**

Soraluze, 2026ko otsailaren 25 a.—Alkatea.

La resolución se adoptará mediante Decreto de Alcaldía, en el que se hará constar de forma expresa:

a) El otorgamiento de la autorización para la instalación del rótulo, con las condiciones técnicas que, en su caso, procedan.

b) La concesión de la subvención y su cuantía.

c) Las condiciones de ejecución, justificación y pago.

La eficacia de la subvención quedará condicionada al cumplimiento de las condiciones establecidas en la autorización otorgada.

**Justificación y Pago:** La concesión de la subvención se efectuará en atención al presupuesto presentado por la persona solicitante.

No obstante, el reconocimiento de la obligación y el pago efectivo de la subvención quedarán condicionados a la previa y adecuada justificación de la actuación subvencionada.

A tal efecto, la persona beneficiaria deberá presentar la siguiente documentación en el plazo máximo de **seis meses** desde la fecha de notificación de la resolución de concesión.

- factura detallada acreditativa de la realización del gasto
- documentación gráfica (fotografía) que acredite la efectiva instalación del rótulo en el establecimiento.

La falta de presentación de la documentación justificativa en el plazo señalado determinará la **pérdida del derecho al cobro de la subvención.**

Soraluze, a 25 de febrero de 2026—El Alcalde.